

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PANDEMIEN PANDEMIA

Bizi dugun pandemia garai desberdin eta korapilatsu honetan, zeina herrialde gehienak ahalik eta azkarren desagerrarazten saiatzen ari diren, beste pandemia batek ere badirau, patriarkatuaren hasieratik esistitzen dena eta amaigabea bihurtzen ari dena, urrun ikusten baitugu horren erradikazioa, denbora laburrean behintzat, ez baitu gau dugun beste pandemia honek izan duen inplikazioa eduki.

Ez dezagun utzi emakumeen aurkako indarkeria, genero indarkeria, indarkeria matxista ezabagaitza den pandemian bihurtu, ez dezagun utzi hori badagoenik ukatzen dutenek, COVID 19arekin gertatzen den moduan, gainontzekoak engainatzen jarraitzea.

Baina gobernu desberdinak horrekin lanean hasten diren bitartean, tratatuak berretsi, legeak ezarri edo beharrezkoak diren neurriak ezartzen dituzten bitartean, has gaitzen lanean gure gertuko esparruetan emakumeen aurkako indarkeria erotik ezabatzeko, lantokian, oraingo pandemiarekin egiten dugun moduan, baina ahaztu gabe:

- Lanean indarkeria sexuala ezabatu dezakegu horrelako egoerak ez baditugu estaltzen.
- Lanean indarkeria sexuala ezabatu dezakegu lantokietan egoera matxistak suertatzen direnean horietan parte-hartzen ez badugu.
- Jazarpen sexual aedo sexu arrazoiengatikoa

ezabatu dezakegu lantokian hori zer den jakinda eta egoera horiek identifikatuz.

- Matxismoa erotik ezabatu dezakegu lantokian ere berdintasunean formatuta.

- Ingurumen-jazarpena ere ezabatu dezakegu kateak mozten baditugu, txutxumuak, txiste sexistak, sexu komentario lizunak, intsinuazio sexualak, txantxa iraingarriak, bitiza sexualaren inguruko zurrumurruak eta jendearengana zuzentzeko era lizunak mozten baditugu.

- Genero indarkeria ezabatu dezakegu jazarleen ekintzak justifikatzeari eta emakumei errua botatzeari utzita.

- Genero indarkeria ezabatu dezakegu emakumeak sinistu eta euren jarrera zein janzkera epaitzeari uzten badiogu eta jazarleak isolatuta.

- Genero indarkeria ezabatu dezakegu emakume lankideak errespetatu eta berdintasunez tratatuz.

- Laneko sexu-indarkeria ezabatu dezakegu komentario eta jarrera sexistetan ez badugu parte-hartzen, txikiak izan arren indakeriaren euskarri baitira.

Ez da indarkeria edo sexu-jazarpenik onartu behar, ezta garrantzirik gabekotzat jo ere. Ez zaitetz isildu eta ez babestu jazarpena egiten duten horiek. Ez justifikatu euren ekintzak, hori ere GENERO-INDARKERIA baita. Gobernuek beharrezko baliabide guztiak jartzen ez dituzten bitartean, ez zaitetz izan beste pandemia honen konplize.



VIOLENCIA DE GENERO: LA PANDEMIA DE LA PANDEMIA

¡Ni un paso atrás en igualdad!
25N 
servicios a la ciudadanía